



GOBIERNO
DE ESPAÑA

GOBERNUAREN
ORDEZKARITZA
EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN

GOBERNUAREN
ORDEZKARIORDETZA
ARABAN

GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA ARABAN

Zerbitzuen Karta

2019tik 2022ra



Edita: Ministerio de Política
Territorial y Función Pública
NIPO: 277-19-068-3

AURKIBIDEA

I.- AURKEZPENA

II.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA HELBURUAK

III.- ESKAINITAKO ZERBITZUEN ZERRENDA

- HERRITARREI INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGOA
- HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA SEGURTASUNA
- ADMINISTRAZIO BAIMENAK
- NAHITAEZKO DESJABETZEAREN PROBINTZIAKO EPAIMAHAIA
- BABES ZIBILA
- EMAKUMEEI EGINDAKO INDARKERIAREN KONTRAKO KOORDINAZIOUNITATEA
- OSASUNA
- NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
- SUSTAPENA - INSTITUTU GEOGRAFIKO NAZIONALA (IGN)
- INDUSTRIA
- HEZKUNTZAREN GOI-IKUSKARITZA
- LANA
- ATZERRITARREN BULEGOA

IV.- HERRITARREN ETA ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK

V.- HERRITARREK ETA ERABILTZAILEEK ZERBITZUAK HOBETZEKO PARTE HARTZEKO ERAK

VI.- KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

VII.- ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIZKO ARAUTEGIA

VIII.- ESKAINTZEN DIREN KALITATE-MAILAK EDO KONPROMISOAK

IX.- ZERBITZUEN KARTA AZTERTZEKO ETA JARRAITZEKO ADIERAZLEAK

X.- ZUZENTZEKO NEURRIAK KONPROMISOAK BETE EZ IZATEKOTAN

XI.- GENERO-BERDINTASUNA BERMATU, ZERBITZURA HELTZE ERRAZTU ETA PRESTAZIOAREN BALDINTZAK HOBETZEN DITUZTEN NEURRIAK

XII.- KALITATEA, INGURUMENA ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEATZEKO SISTEMAK

XIII.- ORDUTEGIAK, HELBIDE TELEFONIKOAK, TELEMATIKOAK ETA POSTALAK

XIV.- KOKAPEN-PLANOAK ETA SARBIDERAKO ETA HELTZEKO BIDEAK

XV.- ZERBITZUEN KARTAZ ARDURATZEN DEN UNITATEA

Aurkezpena

Herritarren zerbitzua da Espainiako geografia osatzen duten probintzietako Gobernuaren Ordezkaritzen helburua eta zerbitzu honetako kalitatea etengabe hobetzea da langileen eta arduradunen gogo bizia.

Zerbitzuen Kartak Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioak bultzatutako ekintza ebolutiboetan sartzen dira, administrazio-zerbitzuen kalitatea hobetzeko planaren barruan. Helburua Administrazio berria eraikitzea da, eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta herritarrekiko zerbitzu efizienteko printzipio funtzionalek zuzendua, herritarrek erabakien erdian kokatzen dituenak.

Zentzu honetan nabaria da Karten funtsezko papera herritarren artean Administrazio Unitateen kalitate-konpromisoak eta hobetzeko ahaleginak zeintzuk diren zabaltzeko.

Premisa hau hartuta, emandako zerbitzuetan nabaritzen dituzuen alderdi on edo txarrei buruz egingo dizkiguzuen iruzkinak gure prestazioak zerbitzuari buruzko dituzuen eskaerei eta itzaropenei moldatzen lagunduko dute.

Zure arreta eskertzen dizugu eta espero dugu agiri hau baliagarria izatea.

I

dentifikazio-datuak eta helburuak

Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gobernuaren Ordezkariordeztza Araban Administrazio-unitateak dira, Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioari organikoki lotuta.

Administrazio-unitate hauen eskumen nagusia honako hau da: probintziako eremuan Estatuko Sektoreko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (69.etik 79.era arteko artikulua) agintzen dizkion funtzio guztiak kudeatzea, probintzian bestelako Estatuko Administrazio Orokorraren erakundeek ematen dituzten zerbitzuak hobetzeko ekimenak koordinatuz, ikustatuz eta bultzatuz.

Halaber, organo hauei ere legez badagozkie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren toki entitateekiko eta toki erakundeekiko komunikazio-, elkarlan- eta lankidetzafuntzioak.

Karta honen helburu nagusia da herritarrei Ordezkaritzak eta Ordezkariordeztzak ematen dituzten zerbitzu guztiak erakustea, horretarako eskumenak dituen unitateak identifikatzea, erabiltzaileei haien eskubideei buruz informazioa jakinaraztea eta onartutako kalitate-konpromisoak aurkeztea.

Agiri hau probintziako herritarrentzat eta langile publikoentzat geroko aurkezpenak oinarrituko diren iturria da, bai eta informazio nabariena daukan triptiko zein Karta honetako eduki garrantzitsuenak bilduko dituen zerbitzuen katalogoaren bidez ere.

E

uskainitako zerbitzuen zerrenda

Araba dagoen Gobernuaren Ordezkariordeztzak zerbitzu hauek ematen dizkie herritarrei:

HERRITARREI INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGOA

Aurrez-aurreko Informazioa, telefonikoa, idatzitakoa eta elektronikoa honako honi buruz:

- Estatuko Administrazio Orokorra: antolamendu organikoa eta funtzioak.
- Estatuko oinarrizko legedia.
- Estatuko Administrazio Orokorraren indarreko prozedurak.
- Administrazio Publikoetako eta haien informazio-bulegoetako helbideak eta telefonoak.
- Estatuko Administrazio Okorrrak argitaratutako Zerbitzuen Kartak.
- Estatuko Administrazio Orokorraren lan-eskaintza publikoak eta eskabideak ematea.
- Administrazio Publikoen laguntzei, diru-laguntzei, sariei eta bekei buruzko informazioa.
- Estatuko Administrazio Orokorraren argitalpenak.
- Estatuko Aldizkari Ofiziala, Probintziako Aldizkari Ofiziala eta Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala kontsultatzea.
- Agiriak legeztaiteari buruzko informazioa (Hayako Ituna).
- Tasei, aurrekari penalen ziurtagiriari eta azken borondateei buruzko informazioa eta izapidetzea.
- Gobernuaren Ordezkaritzan eta Ordezkariordeztzan izapidetzen diren prozedurak.
- Atzerriko tituluen homologazioa.
- Zinpeko Itzultzaile-interpretaren Titulua izapidetzea eta ematea.

- Bizilekua Espainian izateagatik Espainiako nazionalitatea eskuratzeari buruzko informazioa.
- Interesdunei unibertsitate tituluak eta ziurtagiriak ematea.

Erregistroari lotutako laguntzako bulegoa:

- Bide elektronikoak erabiltzen laguntza Administrazioekin harremanak mantentzen diren bitartean (sarbideak, ziurtagiriak, etab.).
- Interesdunak administratiboki harremanak eduki nahi dituen erakundeen DIR 3 kodeei buruzko laguntza eta informazioa.
- Funtzionario publikoaren aurrean agertzeko ahalordeak kudeatzea OAMR-etan. Izena ematea, aldaketa eta baxa APODERAN.
- Aurrekari penalen eta sexu izaeragatiko delituen ziurtagiriak eskatzeko izapideak.

Agirien erregistroa:

- Gobernuaren Ordezkaritzari eta Ordezkariordeztzari zuzendutako eskabideak, idazkiak eta jakinarazpenak..
- Administrazio Publikoetako beste edozein Organori zuzendutako eskabideak eta idazkiak eta haiei bidaltzea.
- Diru eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak egindako ziurtagirien erregistroak, pertsona fisikoentzako 2CA klasekoak.
- @CLAVE sisteman alta-erregistroa.
- Aurkeztutako eskaerei eta idazkiei lotutako hartu-izanaren agiriak..
- Interesdunek aurkezten dituzten paperezko agirien benetako kopiak ematea.

HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA SEGURTASUNA

Zehapen-espeditenteak gai hauetan izapidetzea:

1. Armak, lehegailuak eta gailu piroteknikoak

- Datozen arau-haustek: legedia ez betez arauko armak fabrikatzeagatik, konpontzeagatik, biltegiatzeagatik, mugitzeagatik, salerosteagatik, garraiatzeagatik, banatzeagatik, erosteagatik, ziurtatzeagatik, besterentzeagatik edo erabiltzeagatik, eskatutako agiriak edo baimena ez edukiz edo baimendutako mugak gaindituz.

- Armak edukitze, erabiltze, zaintze eta/edo mantentzeari buruzko arau-haustek, bai eta beldurrarazteko asmoz pertsonen segurtasun fisikorako objektu arriskutsuak erakusteari buruzkoak.
- Arauzko armek eskatzen dituzten agiriak ez edukitzeagatik arau-haustek, bai eta armak galtzeagatik, arduragabekeriagatik edo mantentzea bermatzeko neurriak ez hartzeagatik edo gutxiak izateagatik ere.
- Debekatutako armak edukitzeagatik, erabiltzeagatik, publizitate egiteagatik eta salerosteagatik.
- Lehegailu, gailu pirotekniko eta kartutxerari lotutako arau-hauste larriak eta arinak.
- Herritarren segurtasunari eragiten dioten jarduerak eskatzen diren erregistroak ez edukitzeagatik, hala nola, armak, kartutxeria eta gailu piroteknikoak saltzea.

2. Drogak

- Toki, bide, establezimendu edo garraio publikoetan droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak legez kanpo eduki edo publikoki hartzeagatiko zehapena.
- Jendeak ikus ditzakeen tokietan droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak legez kanpo landatu eta hazteagatiko zehapena.
- Legez kanpo eduki edo publikoki drogak hartzeagatik jarritako zehapenak etetea adingabeen kasuan, ohitura kentzeko tratamendua hasi delako.
- Gai toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak eta toki, bide, establezimendu publikoetan legez kanpo kontsumitzen eta salerosten uzteagatiko edo haien arduradunek oztopatzeko prestasuna ez erakusteagatiko zehapena.

3. Herritarren segurtasuna

- Agiri pertsonalak lortzeko beharra ez betetzeagatik edo agiriak emateari uko egiteagatik, kentzea edo atxikitzea ebatzi denean.
- Agintariei eta haien agentei dituzten legezko jarduketak egitea oztopatzen zaizkien arau-haustek

4. Segurtasun pribatua

- Segurtasun pribatuko enpresek edo detektibe bulegoek egindako segurtasun pribatuari buruzko araudiaren aurkako arau-haustek, haien jarduketa-eremua nazionala denean zein ekintzak edo ez-egiteak erkidegoz haraindiko eremukoak direnean.

5. Atzerritarrak

- Dagokion administrazio baimenik ez duten langile atzerritarrak kontratatzeagatiko Arau-hauste aktetatik eratorritako zehapen ebazpenak.
- Gonbidapen-gutunari esker herrialdean sartu den atzerritarra Espainian legez kanpo geratzea bultzatzeagatiko zehapen ebazpenak.
- Espainiako lurraldean legez kanpo geratzeagatiko zehapen ebazpenak.

ADMINISTRAZIO BAIMENAK

Espedienteak izapidetzea gai hauetan:

1. Armak

- “E” motako arma-lizentziak baliogabetzea, ukatzea eta uko egitea. Guardia Zibilaren Arabako 1101 Komandantziaren Lehen Buruak du baimen horiek emateko eskumena.
- 6.2, 3 eta 4 eta 7.4 kategorietako armen baimen bereziak uko egitea eta baliogabetzea.
- Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiar zuzendutako “B” motako arma-lizentziei buruzko txostenak.
- Behar bezala onartutako tiro-eremu, -poligono eta -galeriatik at armak erabiliz egindako ekintzak baimentzea.
- Bolbora beltzezko aurrekargako armak arkabuzaritzako ekitaldietan erabiltzeko baimena.

2. Segurtasun pribatua

- Segurtasuneko jagoleek armak erabiliz zerbitzua egiten duten tokietako armategiak onartzea.
- Titulua gaitzeko Gobernuaren Ordezkaritzan beren garaian zin egin zuten Segurtasuneko Zinpeko jagoleko ziurtagiriak ematea.

3. Lehergailuak

- Lehergailuak aldi bateko edo betiko kontsumitzailearentzako baimena.
- Ezohiko leherketetarako baimena.
- Bukatutako produktuak gordetzeko fabriketan integratuta ez dagoen establezimendurako baimena, 10.000 kilotarako edukierara arte, bai eta funtsezkoak ez diren aldaketetako eta martxan jartzeetarako ere.

- Gordetegiko zuzendari teknikoa izendatzeari lotutako adostasuna.
- Garraiatzen diren bitartean istripua edo aurretik sumatu ezin den zioa dela eta, lehergailuak gordetegitik at behin-behinean biltegitzako baimena (94.2 art.).
- Eliminazio-, inertizazio-, birziklatze- edo berrerabiltze-trataeretakoko baimena.

4.- Gailu piroteknikoak eta Kartutxeria

- Publikoari saltzen dioten tailerrak edo establezimenduak ezartzeko, martxan jartzeko eta haietan aldaketak egiteko baimena.
- Su-artifizialak erabiltzen diren ikuskizunak egiteko baimenak, NEC 100 kilokoa baino handiagoa denean.
- Bukatutako produktuak gordetzeko tailerrean integratuta ez dagoen establezimendurako baimena.
- Eliminazio-, inertizazio-, birziklatze- edo berrerabiltze-trataeretakoko baimena.

5. Bestelakoak

- Zigor-tuen jokabideei buruzko txostenak..

NAHITAEZKO DESJABETZAREN PROBINTZIAR EPAIMAHAIIA

Administrazio izaera eta magistratu bat lehendakari duen kide anitzeko organo honek funtzio hau betetzen du: Administrazio Publikoek onura publiko edo interes sozialarengatik nahitaez desjabetzen dituzten ondasunen balio justua inpartzialki ezartzea, alderdiak kalte-ordainetan akort jartzen ez badira.

Eginkizun nagusiak honako hauek dira:

- Estatuko Administrazio Orokorrek bidalitako balio justuko espedienteak izapidetzea eta ebaztea.
- Ebazpen horien aurkako jarririko berraztertze errekurtsoak izapidetzea eta ebaztea.
- Balio justuari buruzko espedienteen agiriak indexatuta prestatzea eta Auzitegi Nagusiar bidaltzea, Epaimahaiaren ebazpenen aurka auzi-errekurtsoak jartzen direnean, bai eta gero erabakiak gauzatzea ere.
- Alderdi batek eskatuta, ezarritako legezko epea gainditu zen eta, balio justuko espediente ebazteagatik Epaimahaiari egotzi zaizkien berandutza-korrituetako espedientea izapidetzea eta bidaltzea, Finantza-administrazioko Zuzendaritza Nagusiak azter eta ebatzi dezan.

BABES ZIBILA

Unitate honek, bere eskumenen barruan, Babes Zibilaren Sistema Nazionalaren jarduketak hauek ditu helburu: babes zibileko arriskuak aurreikustea eta aurre egitea; larrialdietan gertatzekoan planifikazioa eta berehalako erantzuna; berreskuratzea eta interes nazionalako larrialdiak:

- Honako arrisku hauek gertatzekotan babes o protokolak zein ekintza-planak egitea, eguneratzea eta kudeatzea: uholdeak, baso suteak, arrisku erradiologikoak, arrisku bolkanikoak, arrisku sismikoak, arrisku kimikoak, aireko istripuak, itsas-kutsadura, itsasikarak, errepidetik gai arriskutsuzko garraioen istripuak, gai arriskutsuak dauden istripu larriak.
- Babes zibil eta larrialdiei buruzko informazioa eta laguntza.
- Estatuko larrialdiak planifikatzea eta kudeatzea.
- Toki eta autonomia erakundeekin elkarrekin lan egitea lurraldeko larrialdiak kudeatzeko.
- Larrialdi-egoera edo hondamenetik eratorritako behar zehatzei aurre egiteko diru-laguntzei buruzko informazioa.
- Diru-laguntzei buruzko eskabideak izapidetzea eta kudeatzea.
- Hegazkineria Zibileko istripuen biktimak eta senidekoak laguntzen dituen Harremanetarako pertsonaren eginkizunak planifikatzeko, koordinatzeko, kudeatzeko, prestatzeko eta jendartzeratzeko jarduketak.
- Barne Ministerioko Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren Larrialdi Irrati Sarearen lankideei egiaztagiria ematea.
- Larrialdi Irrati Sarea (REMER, gazteleraz) lurraldeetan eratzea eta kudeatzea.
- Ingurumen-erradioaktibitateari jarraipena egitea.
- Instituzionalki parte-hartzea Babes Zibilari buruzko eskumenak dituzten kide anitzeko organoetan.
- Aipatutako arriskuen kudeaketari buruzko prestakuntza- eta jendartzeratze-ekintzak garatzea.

EMAKUMEEI EGINDAKO INDARKERIAREN AURKAKO UNITATEA

Unitate honek ez dauka emakume biktimei laguntza zuzena emateko zerbitzua, baizik eta Autonomia Erkidegoan dauden zerbitzuei buruzko informazioa emateaz arduratzen da eta emakume hauek ezarritako Zerbitzuetan behar bezala hartuak izateko kudeaketak egiten ditu. Funtzio nagusiak hauek dira:

- Arrisku-egoeran dauden emakumeak babesteko informazio eta baliabideak zein banakako jarraipenak egiteko aukerak koordinatzea.

- Genero-indarkeriaren biktimei babes integrala sustatzea, Autonomia Erkidegoan babes honetara bideratutako funtzionatzen diren baliabideak eta ahultasun handieneko profilak identifikatuz.
- Genero-indarkeriaren egoerei jarraitzea, batez ere arrisku handienetakotzat jotzen direnei, ahultasun handieneko profilei, elkarrekin bizitzen hasi direla ziur jakiten diren kasuei edo kautelazko neurria eraginik gabe uzten denean eta Genero indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzak jakinarazi dituen kasuei.
- Emakumeei aurkako beste indarkeriako era batzuetako eremuko funtzioak (emakumezko mutilazio genitala, sexualki esplotatzeko emakume eta nesken salerosketa, nahitaezko ezkontzak, etab.).
- Genero-indarkeriari eta erakundeetako erantzunari buruz aldizkako jarraipen-txostenak.
- Erakundeen arteko koordinazioa.
- Esplotazio sexualerako emakumezkoen trata-egoerei laguntza emateko Estatuko Administrazio Orokorraren baliabide eta zerbitzuen jarraipena.
- Sentsibilizazio-kanpainak eta prestakuntza-kurtsoetan parte hartzea eta antolatzea.
- Profesionalen prestakuntza eta espezializazioa sustatzea eta horretan kooperazioa.
- Genero indarkeriak eragindako hil diren biktimei (emazteari eta/edo seme-alabei) lotutako jarduketak, bai eta larri zauritakoei ere.

OSASUNA

Areto/Bulego hauek dagozkien lurralde eremuetan datozen funtzioak ematen dituzte: haien zerbitzu integratuen txostenak, jarduketa teknikoak eta bestelako lanak, abuztuaren 1.ko 1330/1997 E.D.ari jarraituz.

Bidaiarien nazioarteko garraio eta nazioarteko garraibideetatik eratorritako osasunerako balizko arriskuak zaintzeko eta kontrolatzeko jarduketak:

- Nazioarteko bidaiariei osasun gomendioak eta txertoak eta/edo zingira aurkako kimiofilaxia ematea/gomendatzea. OMEK Txertaketako Nazioarteko ziurtagiria ematea.
- Kontrol eta zaintza higieniko-sanitarioa nazioarteko garraioko instalazioetan eta garraibideetan: Vitoria-Gasteizko aireportua.
- Hileta osasun araudia: hilotzak eta gorpuzkiak nazioarteko garraioaren kontrola eta zaintza.
- Nazioarteko Osasun Araudia betetzea.

- Tasen kudeaketa: txertaketa (068) eta hirugarren herrialdeetatik etortzen diren animalia-jatorriko produktuen osasun kontrolak (060).

Inportazio, esportazio edo merkantzien zirkulaziotik eratorritako osasunerako balizko arriskuak zaintzeko eta kontrolatzeko jarduketak:

- Kontrol eta zaintza higieniko-sanitarioa eta baimenak kudeatzea merkantziatako osasun kontrolerako mugako instalazioetan. Mugako Ikuskapen Postua (PIF) eta Gaitutako aduana-esparrua (RAH) Vitoria-Gasteizko aireportuan.
- Elikagai eta elikatze-produktuen baldintza higieniko-sanitarioak ikuskatzea eta kontrolatzea zein Inportazioan eta nazioarteko trafikorako indarrean dauden arau tekniko-sanitarioetan ezarritako eskakizunak betetzea.
- Ziurtagiriak eta osasunari buruzko informazioa ematea.
- Operadore ekonomikoari TRACEX aplikazioan alta onartzeko kudeaketa.
- Sendagaiak eta produktu sanitarioak eta kosmetikoa fabrikatzen edo inportatzen dituzten instalazioen ikusketa farmazeutikoa. Enpresei eta operadore ekonomikoari informazioa eta aholkuak ematea inportaziorako prozedurari zein horretan landuko duten establezimenduak irekitzeko behar diren betekizunei buruz.
- Sendagaiak, produktu sanitarioak, kosmetikoak eta biozidak inportatzearen gaineko kontrol sanitarioa.
- Sendagaiak esportatzearen gaineko kontrol sanitarioa.
- Lagin Biologikoak inportatzeko eta esportatzeko baimen sanitarioa.
- Nazioarteko Garrantziaren Osasun Publikoko Larrialdiei aurreko alerta-mekanismoa kudeaketan parte hartzea Izendatuko Sarrera-puntuan: Bilboko portua.

Legez kanpoko trafikoko gai estupefaziante eta psikotropikoei buruzko jarduketak:

- Txosten teknikoak egitea identitate, konfiskazioak kontrolatzeari datxezkion narotasun eta bestelako gairi buruzkoak.
- Konfiskatutako materiala hartzea eta zaintzea zerbitzu eskudunek ema izatetik suntsitzera arteko aldiaren zehar.
- Epaitegi eta auzitegietan adituek egiten dituzten jarduketak.

Koordinazio funtzionaleko jarduketak:

- Gipuzkoan eta Bizkaian dauden Gobernuaren Ordezkariordeztetan sartutako arlo funtzionaleko organoen koordinazioa.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

Areto/Bulego hauek datozen funtzioak ematen dituzte: haien zerbitzu integratuetako txostenak, jarduketa teknikoak eta bestelako lanak, dagozkien lurralde eremuetan abuztuaren 1.ko 1330/1997 E.D.ari jarraituz. Zerbitzuak:

- Landare osasun eta animalia osasuneko esportazioak zein inportazioak kontrolatzea eta ziurtagiriak ematea.
- Animalia-jatorriko produktuen albitari-kontrolari buruzko 080 tasak kontrolatzea eta egiaztatzea.
- Behartsuenentzako Elikatze-laguntza programa kontrolatzea eta jarraitzea.
- Elikatze-kanpaiak kontrolatzea eta jarraitzea.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministerioak landa-ingurune pertsonentzat diruz lagundutako kurtsoen ziurtagiriak.
- Nekazaritzako aseguruak.
- Ikuskapenak eta parte hartzea abere-enkanteetan eta -lehiaketetan arraza garbikoko kasu hauetan: plazako zezenak, ardi goiztiarrak eta kirol zaldi espainiarrak.
- Produktu zoosanitarioetako establezimenduetarako baimenaren aurretiko kontrolak.
- Iraungitako IRYDAk eman ziren hipoteka-mailegua kitatzeko kudeaketa.
- Ureztatuetako plan nazionari lotutako inbertsioen jarduketari jarraipena egitea.
- Kanpoko uretan itsas-arrantza ikuskatzea.
- Eraiki berriko itsasontziek egindako arrantza-probak kontrolatzea.
- Autonomia Erkidego bereko edo beste bateko portuen arteko baseen aldaketak.
- Arrantza-ekipoen onarpen-ziurtagiriak.
- Arrantza-ontzien baxa-konpromisoak sinatzea.
- Itsas-arrantzarengatik legea arautzeko zehapen-espeditenteak kudeatzea.
- Arrantzarako lizentzia eta baimen bereziak.
- Babestutako espezieak arrantza egiteko eta txapelketa zein lehiaketetarako baimenak.
- Arrantza-sektoreko langileentzako prestakuntza-kurtsoei jarraitzea eta aztertzea.
- Arrantza-ontziak desegiteko egiaztatpena.

- Eraiki berria den arrantza-ontzidi operatiboa erroldan altako eskabideak izapidetzea.
- Zurezko kroskoko ontzietako urperatzea ziurtatzea.
- Aldi baterako baxan dauden ontzien berraktibatzea izapidetzea

SUSTAPENA

Unitate honek burutzen dituen funtzioak:

Trenbide sektoreko araudia aplikatuz:

- Azpiegitura eta trenbide jabari publikoari lotutako arau-haustek eragindako zehapen-espeditentak.
- Jabari publikoko edo trenbide azpiegituraren babeseko guneetan lanak edo legez kanpoko instalazioak etenarazteko espeditentak. Halaber, baimenetan ezartzen diren debekatutako erabilerak, baimendu gabekoak edo baldintzak betetzen ez dituztenak eteteko espeditentak, bai eta bide legezkontasuna berreskuratzea ere.

Errepide sektoreko araudia aplikatuz:

- Jarduketa uzten duten errepidean ari diren garraiolari autonomoei laguntzei buruzko informazioa, haietan parte hartzea eta jarraipena egitea.
- Bideko jabari publikoa eta bere babes-guneak zaintzeari buruzko falta arinengatiko zehapen-espeditentak.
- Jabari publikoko edo babes-guneetan lanak edo legez kanpoko instalazioak etenarazteko espeditentak. Halaber, baimenetan ezartzen diren debekatutako erabilerak, baimendu gabekoak edo baldintzak betetzen ez dituztenak eteteko espeditentak, bai eta bide legezkontasuna berreskuratzea ere.

Beste jarduketa batzuk:

- Sustapen Ministerio eta Kultura Ministerioen artean 1,5% kulturalaren bidez Espainiako Ondare Historikoan elkarrekin jokatzeko Lankidetz IV Hitzarmenari buruzko informazioa, bertan parte hartzea eta jarraipena egitea.
- Gaur egun Sustapen Ministerioaren menpean dauden organismoek eman zituzten mailegu osagarrietako hipotekak ezerezteari eta haien kudeaketa osagarriari buruzko informazioa.
- Itsasketa- eta aire-nabigazioko titulazioak emateko eskaeren kudeaketa.
- Espainian Arkitekto, Arkitekto Tekniko eta Ingeniari gisa lantzeko eraginetarako tituluak onartzeko eskaeren kudeaketa.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko Erkidegoko lizentzietarako eskaeren kudeaketa.

- Euskal Autonomia Erkidegoan errepidetik garraio-jarduketak lantzeko gaikuntza profesionala egiaztatzeko probetako Epaimahaian parte hartzea.
- EBko herritar kideei Garraiatzeko gaikuntza profesionalaren ziurtagiria Homologatzeko eskaera kudeatzea.
- Aerostatozko hegaldietarako, kezko idazkerako aireko lanetarako, publizitate-globoak jartzeko eta aireko nabigazioari uki diezaioketen beste motatako jarduketetarako baimenen eskaerak kudeatzen diren bitarteko kontrola.
- Euskal Herriko Lurraldeko Ordenamenduko Batzordean parte hartzea.
- Ekialdeko Kantauri Ur-kontseiluan parte hartzea.
- Sustapen Ministerioak egindako desjabetzeetan parte hartzea, Administrazioaren ordezkariatza landuz.

INSTITUTU GEOGRAFIKO NAZIONALEKO ESKUALDE-ZERBITZUA (IGN)

IGNak Autonomia Erkidegoetan dauzkan Unitateak dagozkien Gobernuaren Ordezkaritza/Ordezkariordeztetan sartuta daude; kasu honetan, Unitatea Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztan. Horrela azpiegitura zientifiko eta teknikoak zuzenago kudeatzen dira eta, halaber, IGNren zein Informazio Geografikoko Zentro Nazionalaren produktuak eta zerbitzuak herritarrei hurbiltzea ahalbidetzen da:

- Erakunde publiko zein pribatuei oinarrizko informazio geografikoa ematea.
- Kartografia, Geodesia, Geofisika edo Astronomiari buruzko informazio geografikoaren gaineko laguntza teknikoa.
- Kartografia zabaltzeko ekintzak koordinatzea eta garatzea (ikastetxeetan, liburu-azoketan....).
- IGN-Autonomia Erkidegoaren hitzarmenerako jarraipen-batzordeetan parte hartzea.
- Lurraldeko mugaketak eta muga lineak birplanteatzea. Autonomia Erkidegoarekiko koordinazioa Datuen basea eguneratzeko.
- Serie nazionaletako kartografiako, kartografia deribatuko, kartografia tematikoko eta informazio geografikoko baseak eguneratzea.
- Sare sismikoa eta sare geodesikoak eta nibelaziokoak kontrolatzea eta mantentzea.
- Institutu Geografiko Nazionalaren eta Informazio Geografiko Zentro Nazionalako produktuak "Casa del Mapa"n merkaturatzea.

INDUSTRIA ETA ENERGIA

Azpiegitura industrial eta energetikoko estatuko eskumenari lotutako espedienteak izapidetzea:

- Gasbide, oliobide eta energia elektrikoa produzitzen eta garraiatzen duten instalazio elektrikoehi nahitaezko desjabetzeari eta/edo bide zorrari buruzko espedienteak egitea.
- Gasbide eta oliobideetako, prospekzioetako, zentral elektrikoetako, azpiestazioetako eta energia elektrikoa garraiatzeko lineetako proiektuei buruzko espedienteak eta onarpen-txostenak egitea zein onura publikotzat izendatzea eta onartzea.
- Ordezkariordeztan izapidetutako gasbideak, oliobideak prospekzioak eta instalazio elektrikoak martxan jartzeko baimena.
- Patente eta markei buruzko informazioa eta agiriak.
- Aldi baterako / ohiko kontsumitzaileetako eta lehergailutegietako espedienteetan txosten teknikoa idaztea.
- Lehergailu-lantegiak, biltegiak eta bolborategi osagarriak baimentzea eta martxan jartzea.
- Ezohiko leherketetako lantegiak baimentzea eta erregistratzea.
- Gailu piroteknikoak eta su-artifizialak saltzen dituzten establezimenduen eta tailerren gaineko txostenak egitea, espedienteak kudeatzea eta baimena ikustatzea.
- Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ematen dituen diru-laguntzak ikustatzea eta egiaztatzea.
- Arma-dendak, tiro-eremu eta -galeriak irekitzeko baimen-txostena.
- Artileri-txartelak eta artileri-laguntzaile-txartelak ematea.
- Arma-lantegiak jartzeko baimena.
- Establezimendu batek suzko armak eta/edo munizioak publikoari sal ditzadan zuzentzeko baimena (arma-dendak), bai eta bilduta eduki daitezkeen arma eta munizioen kopurua aldatzeko baimena ere.
- Lehergailuak kontsumitzen dituzten enpresei lehergailuez hornitzeko baimena.
- Gobernuaren Ordezkariek ebazten duen su-artifizialezko ikuskizun publikoetarako baimenaren eskaerei buruzko espedientea eta txostenak egitea.
- Aditu piroteknikoko eta aprendiz piroteknikoko zein Aditutzat onartutako Kontsumitzaileen Taldearen arduraduneko txartelak ematea.
- Administrazio-baimenari buruzko informazioa, izapidetzea eta jarraipena egitea

eta exekuzio-proiektua onartzea Estatuak eskumena duen energia elektrikoa banatzen, garraiatzen edo sortzen duten instalazioak eraikitzeko, aldatzeko eta handitzeko, ustiatzeko eta martxan jartzeko akta egitea.

- Estatuak eskumena duen energia elektriko instalazioen titulartasuneko edo ixteko baimenei buruzko informazioa ematea, izapidetzea eta jarraipena egitea.
- Estatuak eskumena duen energia elektriko instalazioen Onura Publikoko Aitorpena izapidetzea.
- Estatuak eskumena duen energia elektriko instalazioak eraikitzeak, aldatzeak eta handitzeak duen ingurune-inpaktuari buruzko ebaluazio-prozeduraren gaineko informazioa ematea, izapidetzea eta jarraipena egitea.
- Gai pirotekniko eta kartutxeriako araudiak eta Lehergailuetako araudiak arautzen dituzten gaietako instalazioetako Istripu Larriei Aurrea hartzeko kontrola.
- Maiatzaren 7ko 563/2012 Errege Dekretuan jartzen diren zehapen-espedienteak hastea, izapidetzea eta ebaztea. ED hau Gai pirotekniko eta kartutxeriako araudiak onartzen duen irailaren 21ko 1335/2012 Errege Dekretuak aldatuta dago.
- Konfiskatutako edo zaharkitutako lehergailu eta gaiak suntsitzeko txostena eta baimena.
- Armetako fabrikak, arma-dendak, tiro-eremu, -galeria eta -poligonoetarako baimentzeko txostena. Ikuskapena eta aurretiko aginduzko txostena.
- Patenteak eta utilitate-modeloa ustiatzeko ziurtagiria ikuskatzea eta ematea.
- Industria-erregistroko inprimakiak banatzea eta eskaerak bidaltzea. Jendaurreko informazioa.
- Ikerketa zientifiko, tekniko, berrindustrializatzeko, berriztatze eta abarreko laguntzei jarraipena egitea eta kontrolatzea. Txosten teknikoa egitea.
- Estatuak eskumena duen Industria eta Energiako instalazio eta jardueren gaineko administrazio-tasen kobrantza kudeatzea.

HEZKUNTZAREN GOI-IKUSKARITZA

Unitate honek bi funtzio desberdinak dauzka: bata, Autonomia Erkidegoetako hezkuntza sistemari jarraitzea eta aztertzea; bestea, Estatuari dagokion atzerriko titulu eta ikasketei buruzko eskumenak erabiltzeko kudeaketa burokratikoa:

- Unibertsitate-titulazio eta maila akademiko ofizialarekiko baliokidetasun eta homologaziorako eta goi-hezkuntzako atzerriko ikasketen baliozkotzerako betekizun eta prozedurari buruzko informazioa.

- Atzerriko unibertsitate-titulu akademiko ofizialak eta beren eragin profesionalak eta/edo akademikoak emate, egiaztatze, homologatze, baliokide izate, onartze eta baliozkotzeari buruzko informazioa..
- Atzerriko ikasketen homologazio/baliozkotasun-espeditenteak erregistratzea.
- Espainiako unibertsitate-tituluak jasotzea, erregistratzea eta ematea, interesdunak ikasketak egin zituen zentroan alde aurretik eskatutakoan.
- Osasun-espezialisten tituluak kudeatzea, interesdunak alde aurretik eskatutakoan.
- Atzerriko ikasketak Espainiako dagozkien ikasketekiko homologazio/baliozkotzeko egiaztagiria ematea.
- Europako unibertsitate-tituluak zein Lanbide Hezkuntzakoak onartze eta/edo egiaztatzeari buruzko informazioa Europako esparruan jarduketa profesionalari begira. Prozedura honek Europar Batasuneko herrialde bakoitzean "araututako lanbide"ei eragiten die eta Erkidegoko Jarraibideak ezartzen du.
- Hezkuntza Ministerioaren esparruan onarpen/egiaztagiri profesionali buruzko informazioa.
- Hezkuntza Ministerioaren hezkuntza-bekak, laguntzak, lehiaketak eta sariak kudeatzean elkarlana eta informazioa.
- Espainiako eta autonomietako ikasketa planei zein Hezkuntza Ministerioko deialdiei buruzko informazioa.
- Hezkuntza eta prestakuntzako ibilbideei buruzko informazioa, bai eta ikasketa arautu eta arautu gabekoetarako sarbideei buruzkoa ere.
- Unibertsitate-agiri akademikoetako sinadurak onartzea haien legeztapenerako aurretiko izapide gisa, beste estatu batzuetan eraginak sor daitezten.
- Espainiako unibertsitate-zentroetan emandako unibertsitate-tituluak ofizialak diren ala ez informazioa ematea.

LAN ETA IMMIGRAZIOA

18 abenduaren 2725/1998 Errege-dekretuak ezarrita, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Probintziako Zuzendaritzak Gobernuaren Ordezkariordeztetan sartzen dira. Oraindik orain, Gobernuaren Ordezkaritzetan sartutako zenbait Arlo funtzional berregituratzen dituen 23 uztailaren 942/2010 Errege-dekretuak arau honen 2. eta 3. artikulua indargabetu ditu eta Gobernuaren Ordezkaritza bakoitzean Lan eta Immigrazio Arlo bat sortuko dela aurreikusten du, dagokion Gobernuaren Ordezkariordeztan integratzen diren probintziako bulegoetan antolatuta.

Hona hemen funtzio nagusiak:

- Itzultako emigranteen ziurtagiriak ematea.

- Izapidetze-soldatak eta haien Gizarte Segurtasunari kotizazio-kuotetan Estatuak duen erantzukizuna aitortzeko edo ukatzeko proposamena.
- Arau-hausteko aktetatik eratorritako zehapen-prozedura administratiboak ebaztea, dagokion administrazio-baimenik gabe atzerriko langileak kontratatzen direnean.
- Eremu nazionalako lan-kooperatiboetako liburu sozietarioak legeztatzea.
- "Lan-merezimenduari Domina" kondekorazioa kudeatzea.
- Ondare Sindikal Metatuko kudeaketan parte-hartzea.
- Urteko atzerriko langileen taldearentzako bizileku- eta lan-baimenak onartzea.
- Enplegu-erregulazioko espeditenteak izapidetzea, funtzio hau Estatu Administrazioari dagokion kasuetan.
- Enpresak birmoldatzeak eta/edo berregituratzeak direla eta, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak ukitutako langileei ematen dizkien laguntzak kudeatzean elkarlana.
- Itzultako espainiarren behar aparteko egoerez arduratzeko laguntza-eskaerak izapidetzea.
- Espainiako Gobernu eta Australiakoaren artean hitzarmenaren bidez ezarritako Gazteen Mugigarritasun Programan interesatuta daudenen eskaerak izapidetzea eta agiriak ematea.

Atzerritarren Bulegoa

Indarren dagoen araudia betez, honako hau ematea edo ukatzea:


- Bere kontura edo besteren konturako aldi baterako bizileku- eta lan-baimena onartzea eta berritzea.
- Nazioz haraindiko zerbitzuak prestatzeagatiko bizileku- eta lan-baimena onartzea eta berritzea .
- Goi mailako profesionalen bizileku- eta lan-baimena.
- Lan egiteko baimenak eta salbuespenak..
- Iraupen txikiko egonaldiak luzatzea.
- Irabazi-asmorik gabeko aldi baterako bizileku-baimena eta familia berriro elkartzeagatiko bizileku-baimena.
- Sustraitzea eta beste aparteko egoera batzuk
- Lana bilatzeko bizileku-baimenak onartzea.

- Lan-praktiketako bizileku-baimenak onartzea.
- Ikasketak egiteko egonaldi-baimenak onartzea.
- Europar Batasuneko epe luzerako bizileku-baimena onartzea.
- Ikasketak, ikasleen lekualdatzea, lan-praktikak ez direnak edo borondatezko laneko zerbitzuak direla-eta egonaldi-baimenak onartzea, bai eta baimen hori daukaten titularrei lan-baimena ematea.
- Espainian dauden atzerritarren egoerak aldatzea.
- Itzultzeko baimenak.
- Adingabeen bizileku-baimena onartzea.
- Inskripzio-zedulak eta bidaia-tituluak.
- Gobernuaren txostenak (ikasketa-bisetarako, tratamendu medikurako eta adingabeen oporretarakoak).
- Gobernuaren txostenak nazioarteko adopzioetarako.
- EBeko Herritarren Erregistroetako ziurtagiriak.
- Hasierako eta behin betirako Bizileku-txartelak EBko herritarren senidekoa izateagatik.
- Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei zein beren gizarte integrazioari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren aurkako arau-hauste astunak edo oso astunak egiteagatiko zehapen espedienteak ebaztea.
- Kanporatze zehapen-espedienteak ebaztea, EBren Estatukideetako herritarrak zein EEERi buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatu batzuetako herritarrak Espainian sartze, libreki joan-etortze zein bizi izateari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren 15. artikuluan oinarrituta.
- Lehen aipatutako izapideei buruzko informazioa eta jendeari arreta.

Emigrazio-atala

- Emigrazioari arreta. Itzultako emigrante-ziurtagiriak ematea. Itzultako emigrantei informazioa ematea eta laguntzak kudeatzea.
- “Gerraren ume” entzat 3/2005 Legearen prestazio ekonomikoak izapidetzea.
- Itzultako espainiarren aldeko Zahartzaroko Asistentziazko pentsioei buruzko informazioa ematea, eta eskaerak jasotzea (8/2008 Errege Dekretua). Prestazio hauek berritzeko bizi-agiria eta Urteko Diru-sarreraren deklarazioa.

- Osasun laguntza: Atzerrian besteren kontura lan egiten dutenaren eta beren kargura dauden senidekoen osasun laguntzako eskubidea izapidetzea, Espainian dauden bitartean.
- Espainian eta atzerrian emigranteek daukaten osasun laguntzako eskubideari buruzko informazioa.
- Itzultako espainiarren behar larriko egoerei erantzuteko laguntzak izapidetzea (1493/2007 Errege Dekretua).
- Australiarekin egindako Gazteen Mugigarritasun Programaren hitzarmenaren 2 n) klausulan jasotzen diren Babes-eskutitzetako eskaerei buruzko informazioa eta haiek hartzea.




Herritarren eta erabiltzaileen eskubideak

- 1) **Pertsonen eskubideak Administrazio Publikoekin harremanetan jartzean urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan onartuta daude. Honako hauek dira:**
 - a) Administrazio Publikoekin Administrazioaren Sarbide Orokor elektronikoaren bidez harremanetan jartzeko.
 - b) Administrazio Publikoekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko.
 - c) Beren Autonomia Erkidegoko lurraldeko hizkuntza ofizialak erabiltzeko, Lege honetan eta bestelako Ordenamendu Juridikoan jasotakoarekin bat etorritik.
 - d) Informazio publiko, artxibo eta erregistroetan sartzeko, Gardentasun, informazio Publiko eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013ko Legean bestelako Ordenamendu Juridikoan jasotakoarekin bat etorritik.
 - e) Agintari eta funtzionarioengandik begirunezko eta adeitasunezko harremanak jasotzea. Horiek herritarren eskubideak erabiltzen eta betebeharrak egiten erraztu behar izango diete.
 - f) Administrazio Publikoek eta agintariei erantzukizunak eskatzea, legez hala balegokie.
 - g) Lege honetan jasotako identifikazio eta sinadura elektronikoko bideak lortzeko eta erabiltzeko.
 - h) Datu pertsonalak babestuen izateko, eta bereziki, Administrazio Publikoetako fitxategi, sistema eta aplikazioetan dauden datuak seguruak eta konfidentzialak izateko.
 - i) Konstituzioak eta Legeek onartzen dizkieten eskubideetarako, zernahi direlarik ere.
- 2) **Halaber, aipatutako urriaren 1ko 39/2015 Legearen 53. artikuluan interesdunak administrazio-prozeduran dituen eskubideak onartzen ditu. Honako hauek dira:**
 - a) Interesdun gisa dauden prozeduren izapidetzearen egoera edonoiz jakiteko; dagokion administrazio-isiltasunaren zentzurako, Administrazioak ez badu berriazko jakinarazpena epean ebatzi edo jakinarazi; hala dagokionean, izapidetzeko organo eskudunera eta ebazteko; eta emandako izapide-

egintzetarako. Horretaz gain, esandako prozeduretan sartzeko eta haietan jasotzen diren agirien kopiak lortzeko eskubidea ere izango dute. Administrazio Publikoekin bide elektronikoaren bidez harremanak dituztenek aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa kontsultatzeko eskubidea izango dute sarbideko atari gisa ibiliko den Administrazioaren Sarbide Orokor elektronikoan.

Administrazioak prozeduretan sartutako agirien kopiak emateko eginbeharra betetzat joko da kopia horiek eskumena duen Administrazioaren Sarbide Orokorreko puntuan edo dagozkion egoitza elektronikoetan eskura egotearekin.

- b) Prozedurak bideratzeaz arduratzen diren Administrazio Publikoetako aginte eta langileak identifikatzeko.
 - c) Jatorrizko agiriak ez aurkezteko, betiere, salbuespen gisa, aplikatzeko araudi arautzaileak aurkakoa ezartzen ez badu. Salbuespen gisa jatorrizko agiriak aurkeztu behar izatekotan, horren kopia legeztatua jasotzeko eskubidea izango dute.
 - d) Prozedura zehatzeari aplikatu behar zaizkien arauak eskatzen ez dituzten datuak eta agiriak ez aurkezteko, ez eta Administrazio Publikoek dagoeneko dauzkatenak edo hauek egin dituztenak ere.
 - e) Alegazioak egiteko, Ordenamendu Juridikoak onartzen dituen defentsako bideak erabiltzeko, eta agiriak ekartzeko entzunaldi-izapidetza aurreko prozeduraren edozein fasean, organo eskudunak ebazpen-proposamena egiteko aintzat hartu behar izango dituenak.
 - f) Informazioa eta orientabidea jasotzeko indarrean dauden xedapenek egin nahi diren proiektuei, jarduketari edo eskaerei ezartzen dizkieten betekizun juridikoei edo teknikoei buruz.
 - g) Aholkulariak beren intereseak babes daitezela lagunduta jarduteko, egokitzat jotzen dutenak.
 - h) 98.2 artikuluan jasotzen diren bide elektronikoaren bidezko ordainketa-eginbeharrak betetzeko.
 - i) Konstituzioak eta Legeek onartzen dizkieten eskubideetarako, zernahi direlarik ere.
- 3) **Aurreko atalean jasotako eskubideez gain, administrazio zehapen-prozeduren kasuetan, ustezko arduradunek honako eskubide hauek izango dituzte:**
 - a) Honako hau jakinaraz diezaioten: egozten dizkieten egintzak, egintza hauek sor ditzaketan arau-hausteak eta, hala dagokionean, ezar diezazkizoketen zigorra. bai eta instruktorearen nortasuna, zigorra ezartzeko eskumena duen agintaritzarena eta eskumena hau ematen dion araua ere.
 - b) Administrazio-erantzukizuna ez dagoeneko presuntziorako aurkakoa egiaztatzen ez den bitartean.



Herritarrek eta erabiltzaileek

zerbitzuak hobetzeko parte hartzeko erak

Oro har, Gobernuaren Ordezkaritzei eta Ordezkariordeztzei esleitutako zerbitzu eta eskumen guztietarako, herritarrek eta erabiltzaileek zerbitzuen prestazioa hobetzeko parte har eta elkarrekin lan dezaten bide edo tresna hauek erabiliz:

- Iritziak adieraziz aldizka egingo diren inkestetan. Helburua da herritarren gogobetetasun-maila jakitea da.
- Kexa eta iradokizunak eginez, karta honetan eta indarrean dagoen legedian ezarritakoari jarraituz.
- Zerbitzuen Karta honetako Unitate arduradunari bidalitako idatzien edo jakinarazpen elektronikoaren bidez.



Kexak eta iradokizunak

29 uztailaren 951/2005 Errege-dekretuaren IV kapituluan ezarritakoaren arabera, (EAO, irailaren 3a), herritarrek Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztzako Unitateen jarduketa zehatzei zein funtzionamendu orokorrari buruzko kexak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte datozen leku eta bideetan:

- Kexak zuzenean egin daitezke Erregistro, Informazio eta Herritarrei Arreta-bulegoan eskuratzen den dagokion Kexa eta Iradokizun formularioa betetzen.
- Posta bidez.
- Posta elektronikoaren bidez quejasysugerencias.alava@correo.gob.es erabil daiteke, edo egoitza elektroniko honetan ere bai: <https://sede.administracionespublicas.gob.es>.

Kudeaketaz arduratzen den unitateak interesdunari egindako jarduketak jakinaraziko dizkio hogen egun baliodun epean.

Kexa eta iradokizunak lehen aipatutako bidez eginda, erabiltzaileei adierazi duten bidearen bidez jaso egin direla jakinaraziko zaie.

Lehen adierazitakoaren arabera egindako kexak ez dira inoiz ere administrazio-helegitetzat joko eta aurkezteak ere ez ditu indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epealdiak etengo. Halaber, ez dute inoiz ere, prozedura bakoitzaren araudi arautzailearen arabera, prozeduran interesa duten horiek erabil ditzaketan bestelako ekintza edo eskubideak erabiltzea baldintzatuko.

Zerbitzuak arautzen dituen oinarrizko aratuegia

Legezketasun-printzipioa da Administrazioaren ezaugarri nagusienetakoa, hau da, erakundea ordenamendu juridikoa osatzen duten lege eta arauen menpean egotea. Gomendagarria da datozen lege-testuak kontsultatzea bertsio bateratuaz eta behar bezalako eguneratuak.

Jarraian Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztaren zerbitzuak antolatzeari eta emateari eragiten dizkieten arau nagusiak aipatzen dira:

Aplikazio orokorreko arauak

- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak babeste eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 5/2002 Legea, Probintziako Aldizkari Ofizialak arautzen dituena.
- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea Gardentasun, Informaziorako sarbide eta gobernu onari buruzkoa (2013ko abenduaren 10eko EAO 295 zk.).
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 UE eta 2014/24 UE Europar Parlamentu eta Kontseiluaren Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikokoan transposizioa egiten duena
- Abuztuaren 31eko 11/2018 Errege Lege-dekretua, langileekiko pentsioengatik konpromisoak babesteari, kapitalak zurrizko prebentzioari eta hirugarren herrialdeetako nazionalak sartzeko eta bizi izateko betekizunei buruzko zuzentarauen transposizioaren gainekoa, urriaren 39/2015 Legea aldatzen duena.
- Uztailaren 29ko 951/2005 Errege-Dekretua, Estatuko Administrazio Orokorraren kalitatea hobetzeko eremu orokorra ezartzen duena.

- Apirilaren 28ko 522/2006 Errege-dekretua, Estatuko Administrazio Orokorreko eta bere lotutako edo menpeko erakunde publikoetako administrazio prozeduretan nortasun agirien fotokopiak emateko beharra kentzen duena.
- Apirilaren 28ko 523/2006 Errege-dekretua, errolda-ziurtagiria helbidea eta bizilekua frogatzeko agiri gisa Estatuko Administrazio Orokorreko eta bere lotutako edo menpeko erakunde publikoetako prozeduretan emateko beharra kentzen duena.

Arau antolatzaileak

- Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Otsailaren 9ko 208/1996 Errege-dekretua, Administrazio informazio eta Herritarrei Arreta- Zerbitzuak arautzen dituena.
- Abuztuaren 1go 1330/1997 Errege-dekretua, Gobernuaren Ordezkaritzetako zerbitzu periferiko eta egituretako integrazioari buruzkoa. Eta 1997ko azaroaren 7ko Presidentetzako Ministerioaren Agindua, lehen aipatutako Errege-dekretua garatzen duena.
- Abenduaren 18ko 2724/1998 Errege-dekretua, Institutu Geografiko Nazionaleko Zuzendaritza Nagusiaren eskualdeko zerbitzuak Ordezkaritzetan / Ordezkariordeztetan / Gobernuaren Uharteko Zuzendaritzetan integratzeari buruzkoa.
- Abenduaren 18ko 2725/1998 Errege-dekretua, Lan, Gizarte Segurtasun eta Gizarte Gaietako Probintziako Zuzendaritzak Gobernuaren Ordezkaritzetan integratzeari buruzkoa.
- Uztailaren 23ko 942/2010 Errege Dekretua, Gobernuaren Ordezkaritzetan integratuta daude Arlo Funtzional batzuen berregituraketari buruzkoa.
- Ekainaren 355/2018 Errege Dekretua, ministerio-sailak berregituratzen dituena.
- Uztailaren 13ko 863/2018 Errege Dekretua, non Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarrizko egitura organikoak garatzen den.

Administrazio elektronikoa

- Abenduaren 19ko 59/2003 Legea, Sinadura elektronikoa buruzkoa, ekainaren 28ko 25/2015 Legeak aldatuta.
- Otsailaren 21eko 209/2003 Errege-dekretua, erregistro eta jakinarazpen telematikoak arautzen dituena, bai eta herritarrek bide telematikoak erabiltzea ere, aurkeztzen dituzten ziurtagiriak ordezkatzeko.

- Azaroaren 6ko 1671/2009 Errege-dekretua, Zerbitzu Publikoetarako herritarren sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 11/2007 Legea partzialki garatzen duena
- Abuztuaren 31eko 11/2018 Errege Lege-dekretua, langileekiko pentsioengatik konpromisoak babesteari, kapitalak zurrizko prebentzioari eta hirugarren herrialdeetako nazionalak sartzeko eta bizi izateko betekizunei buruzko zuzentarauen transposizioaren gainekoa, urriaren 39/2015 Legea aldatzen duena.

Administrazio baimenak eta Herritarren eskubideak

- Uztailaren 15ko 9/1983 Lege Organikoa, bilerako eskubidea arautzen duena (apirilaren 9/1999 L.O.aka aldatuta).
- Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzkoa
- Martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa, Segurtasuneko Indar eta Kidegoei buruzkoa.
- Abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoa, Segurtasuneko Indarrek eta Kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duena.
- Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei zein haien gizarteratzeari buruzkoa.
- Martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa, herritarren segurtasuneko babesari buruzkoa.
- Apirilaren 8ko 17/1967 Legea, estupefaziantei lotutako premiazko arauak berritzeari buruzkoa.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Apirilaren 4ko 10/1991 Legea, toreo-ikuskizunei lotutako administrazio-ahalmenei buruzkoa.
- Uztailaren 11ko 19/2007 Legea, kirolean indarkeria, arrazismo, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.
- Ekainaren 15eko 4/2009 Legea, drogen aitzindariari buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 5/2014 Legea, Segurtasun pribatuari buruzkoa.
- Irailaren 29ko 37/2015 Legea, errepideei buruzkoa.
- Irailaren 29ko 38/2015 Legea, Trenbide Sektorari buruzkoa.
- Martxoaren 17ko 731/1982 Errege Dekretua, ibilgailu motordunak desegiten dituzten establezimenduak kontrolatzeari buruzkoa.

- Apirilaren 2ko 863/1985 Errege-dekretua, Meatze-segurtasun oinarriko arauetako Araudia Orokorra onartzen duena.
- Urtarrilaren 29 137/1993 Errege-dekretua, Armen Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 9ko 2364/1994 Errege-dekretua, Segurtasun Pribatuaren Araudia onartzen duena.
- Irailaren 2ko 1812/1994 Errege-dekretua, Errepideetako Araudi Orokorra onartzen duena.
- Otsailaren 2ko 145/1996 Errege-dekretua, Toreo-ikuskizunetako Araudia aldatzen eta berridazten duena.
- Otsailaren 24ko 130/2017 Errege-dekretua, lehergailuen araudia onartzen duena.
- Abenduaren 30eko 2387/2004 Errege-dekretua, Trenbide Sektorako Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 23ko 1553/2005 Errege-dekretua, nortasun agiri nazionala eta bere sinadura elektronikoko ziurtagiriak egitea arautzen duena.
- Otsailaren 16ko 240/2007 Errege-dekretua, Europar Batasunaren Estatu-kideetako eta Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean sartuta dauden beste Estatu-erakundeetako herritarrak Espainiara sartu, libreki mugitu eta bizi izatekoari buruzkoa.
- Maiatzaren 9ko 748/2008 Errege-dekretua, Kirolean Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Batzorde Nazionala arautzen duena.
- Otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretua, Kirolean Bortizkeriaren, Arrazismoaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurka egiteko Araudia onartzen duena.
- Maiatzaren 7ko 563/2010 Errege-dekretua, irailaren 21eko 1335/2012 Errege-dekretuak aldatuta, gailu pirotekniko eta kartutxeriaren araudia onartzen duena
- Apirilaren 20ko 557/2011 Errege-dekretua, 4/2000 Lege Organikoa egikaritzeko Araudia onartzen duena.
- Urriaren 30eko 989/2015 Errege-dekretua, Gailu pirotekniko eta kartutxeriaren Araudia onartzen duena.
- 2011ko otsailaren 1eko INT/314/2011 Agindua, (3168 Ebazpena), segurtasun pribatuei buruzkoa.

Babes zibila

- Uztailaren 9ko 17/2015 Legea, Babes Zibilaren Sistema Nazionalari buruzkoa.

- Abuztuaren 1eko 1378/1985 Errege-dekretua, arrisku handi, hondamendi edo kalamitate publikoetako larrialdi-egoeretan jarduteko aldi baterako neurri buruzkoa.
- Apirilaren 24ko 407/1992 Errege-dekretua, Babes Zibilaren Oinarrizko Araua onartzen duena.
- Martxoaren 1eko 387/1996 Errege-dekretua, non salgai arriskutsuak errepidetik eta trenbidetik garraioetako istripuen arriskuari buruzko Babes Zibilaren Planifikazioko Oinarrizko Jarraibidea onartzen den.
- Irailaren 19ko 1196/2003 Errege-dekretua, gai arriskutsuek parte hartzen duten istripu larrietako arriskuaren aurreko kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibilaren Oinarrizko jarraibidea onartzen duena.
- Uztailaren 13ko 1070/2012 Errege-dekretua, arrisku kimiko aurreko babes zibilaren Estatuko plana onartzen duena.
- Irailaren 21eko 840/2015 Errege-dekretua, gai arriskutsuak sartuta dauden istripu larri lotutako arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena.
- Martxoaren 18ko 307/2005 Errege-dekretua, larrialdi edo hondamendi egoerek eragindako zenbait behar betetzeko diru-laguntzak arautzen eta emateko prozedura ezartzen duena, eta urtarrilaren 31eko INT/277/2008 Agindua, delako hori garatzen duena.
